



**“JENDE XUMEA”
NAZIOARTEKO GAZTE
BOLUNTARIOTZARAKO PLANA
Bilbo Sektorea**



(2018ko martxoan birlandua)

1. OINARRIZKO IRIZPIDEAK

1.1 Aurretiko irizpideak:

Plan hau **Bilbo Sektoreko Aisialdi eta Gazte Pastoraleko prozesuetan** integratuta dago.

Planaren baitan ibilbideko momentu esanguratsuak bezainbat da garrantzitsua eramandako **prozesua** bera.

Sektoreko zonalde ezberdinen artean **adostutako** plana da.

1.2 Prozesuaren hasiera:

Batxilergoko edo antzeko mailako gazteei, edota unibertsitateko lehen kurtsoetakoei luzatuko zaie gonbidapena, tokiaren eta gazteen egoeraren arabera; normalean, **aurretiko ibilbide bat** egin dutenak izango dira: Izartxo, Tandanacui, Scout...; hala ere, **posible da** ibilbide hori aldeztatik egin **EZ** duten gazteak ere onartzea.

1.3 Planean parte hartzeko **gonbidapena** batzuetan **talde-deia** izango da eta, bestetan, **pertsonala**.

1.4 Iraupena: **Zenbait urtekoa**, bi urtetara mugatu gabe nahitaez. Planak bere barnean hartzen ditu **boluntariotzako konpromiso sozialak hemen**, herrialde pobretu bateko nazioarteko boluntariotza-proiektura joan baino lehen.

1.5 **Zentro-arteko irizpidea**: plana zonaldeka eta zentro bakoitzean sustatuko da eta Sektorearekiko erlazioan. Hiru zonalde: Zaragoza, Bizkaia eta Gipuzkoa. Zonaldeko Zentroen eta Salletar Elkarleen inplikazioa bilatuko da.

1.6 Oinarrizkoa da **taldeen laguntzaileak** ziurtatzea, bai **laguntasuna eta formazioa hemen** eramango dutenak, bai **nazioarteko proiektua burutuko den tokian eskainiko** dutenak. Zonalde bakoitzean **laguntasun-talde bat** eduki beharko da eta bere animazioa ziurtatu.

1.7 **Malgutasuna** da plana aplikatzerakoan kontuan izango den ezaugarria, Proyde-Proegarekin eta Aisialdi eta Pastoralaren koordinazio taldearekiko elkarriketan.

1.8 Parte-hartzaileak dira **prozesuaren eta beronen garapenaren protagonistak** (egokitzapena haien errealitatera, alor ekonomikoa, ekitaldien prestakuntza...)

1.9 Prozesua **ez da amaitzen** herrialde pobretu batean nazioarteko boluntariotza **proiektuaren burutzapenarekin**. Aurretiko prozesu bat daukan bezala ondorengo ibilbide bat eduki behar du.

1.10 Guztiz garrantzitsua da gazteen **gurasoen inplikazioa** prozesuan.

2. PROGRAMA

- 2.1 Formazio programa **hiru guneren** inguruan garatuko da:
- 1- Formazio instituzionala, solidaritaterako eta barnetasunean.
 - 2- Bizikidetzarako formazioa.
 - 3- Konpromisorako esperientzi formazioa.
- 2.2 Nazioarteko boluntariotza-proiektuaren kokagunea erabakiko da **proiektua burutu aurreko urteko abenduan**. Orduan hasiko da berariazko prestakuntza.

3. ANTOLAMENDUA

- 3.1 Programak **bi ikasturteko iraupena** izango du, gutxienez. Herrialde pobretuko nazioarteko proiektuaren burutzapenean taldeko kide batzuek hartuko dute parte (gazteak, 19-20 urtetik aurrera).
- 3.2 Zonalde bakoitzeko arduradun-laguntzaileek erabakiko dute noiz eta nola egin **deialdiak** talde berri bati hasiera emateko, Proyde-Proegarekin eta Aisialdi eta Pastoralaren koordinazio taldearekiko elkarriketan.
- 3.3 **Topaketak**, normalean, hilero egingo dira, iraupen egokia izango dute, eta talde motaren eta ezarritako helburuen arabera burutuko dira:
- zentroan,
 - zonaldean,
 - oporraldietan,
 - topaketa bat ikasturtero sektorean.
- 3.4 **Hiru topaketa gurasoekin**, gutxienez:
- hasierako topaketa, prozesua planteatzeko eta hasierako oinarritzko zenbait alderdi ekonomiko aurkezteko.
 - bigarren topaketa, prozesuan zehar, edukia zehaztear.
 - proiektuaren burutzapenaren aurreko abenduaren ondoren: proiektu zehatza aurkeztu eta esku hartzearen gaia itxi, bidai txartelak erosteko.
- 3.5 **Bere formazio eta prestakuntzan** talde bakoitzak **laguntzaile eta formatzaile talde baten laguntza** izango du. **Nazioarteko proiektuaren burutzapenean**, normalean, **bi pertsona helduena**. Komenigarri da burutzapen-fasean laguntzaileetako bat gutxienez, udako proiekturen batean parte hartu izana izatea. Sektoreko Pastoral eta Aisialdiko taldeak eta Proyde-Proegak laguntzaileen topaketak sustatuko dituzte Sektore mailan, beroien lana koordinatzearen.
- 3.6 Nazioarteko gazte boluntariotza proiektuak **burutzen diren tokietara** Sektoretik 2 edo 3 talde bidaliko dira urtero. Talde bakoitzak 4-10 gazte izango ditu eta 2 laguntzaile.
- 3.7 Proiektuan parte hartzearen **finantzaketa**:
- Gazteena eta laguntzaileena:
 - Parte-hartzaile bakoitzak: bidaiak, bisatua eta aseguruak: 1.000 € inguru izan ohi da.
 - Egoitza eta beste zenbait gastu (hango bidaiak): Proyde-Proegak.
 - Toki bakoitzean zehaztuko da zonaldeko Zentroen balizko ekarpena laguntzaileen gastuen zatiren bati aurre egiteko

- Komeni da diru kopuru bat adostea gazteekin, hilero entregatuko dutena, parte-hartzaileak konprometitzen joan daitezen (10 €, 20 €...).
- Inportantea da gazteekin austeritatearen gaia lantzea, eta beraien gastu pertsonaletatik ematen saiatzea formazio-prozesu osoan.
- Ona da, halaber, **sentsibilizatze ekitaldiren bat egitea, taldean lanen bat...** dirua bildu ahal izateko bidai gastuetarako eta proiekturako lagungarri. Kontuan izango dira beti jardueraren irizpide etikoak. Ez dira inoiz xede honetarako erabiliko Eskola Kanpainan jasotako funtsak.
- **Hegazkin-txartelen erosketa** Proyde-Proegaren bitartez egingo da. Tramiteak abiatuko dira proiektua erabaki eta berau burutuko den herrialdea jakin eta gero.
- **Diru-laguntzaren bat** lortzeko posibilitatearen aurrean, alde aurretik Proyde-Proegako arduradunekin hitz egingo da haren erabilpenari buruz.

4. FORMAZIOAREN PROGRAMAZIOA

4.1 Formazio **instituzionala**:

- Informazioa La Salleri buruz
 - Identitatea: Fedea - Senidetasuna - Zerbitzua + Zaurgarriekiko arreta lehenetsia.
 - Salletar hezkuntza erakundeak: “hemen eta han”: errealitateari erantzunez.
- Informazioa PROYDE-PROEGA eta PROYDE ZARAGOZARI buruz: helburuak, funtzionamendua, PROYDEn eta PROYDEekin egiten den boluntariotzaren jarrerak eta balioak.

4.2 **Solidaritate**arako formazioa:

- GGKEak.
- Zonaldeko sare solidarioak.
- Garapen iraunkorraren helburuak.
- Garapenerako lankidetzeta eta heziketa. Solidaritatea eta justizia.
- Garapenerako lankidetzeta: ikuspegi historiko laburra.
- Solidaritate ereduak.
- Pobrearen aldeko hautapena.

4.3 **Bizikidetzarako** formazioa:

- Norbere buruaren ezagutza.
- Talde lanerako dinamikak.
- Aisialdirako teknikak eta dinamikak.
- Gatazken bereizmena eta emozioen kudeaketa.
- Bizikidetzak: batzuk iraupen erdiko nahiz luzekoak.
- Taldean bizi... Elkarrekin txikia.

4.4 **Konpromisorako** formazioa:

- Kodigo deontologikoa.
- Boluntarioaren eskubideak eta betebeharrak.
- Jarduera eta konpromiso zehatzak.
- Sektoreko Pastoral eta Aisialdiko taldeak eta Proyde-Proegak programatutako ekintzetan parte hartzea, La Salleko obra ez-arautuetako jardueretan edota boluntariotzaren alorreko beste konpromisoetan.

4.5 Formazioa **barnetasunean**:

- Gorputz lanketa.
- Emozioen integrazioa.
- Irekitasuna transzendentziara.

4.6 **Herrialde hartzailearen** berri izan ondoren, formazio jarduerak programatuko dira gai hauen inguruan:

- Herrialdearen eta eskualdearen ezagutza.
- Errealitate sozial, politiko eta ekonomikoaren ezagutza.
- Kulturaren, ohituren, mintzaira-moten erabileraren, janzkeraren ezagutza.
- Lanaren antolamenduaren ezagutza.
- Tokiko bazkidearen ezagutza: arduradunak eta egiten duten lana.
- Osasuna, prebentzioa eta segurtasuna.
- Logistika, bidaiak eta ekipajea...
- Formazio berariazkoa, egin beharko diren zereginetarako.

4.7 **Talde proiektuaren** burutzapena, herrialde hartzaileko esperientzia aurrera eramateko:

- Esperientziaren helburuak: pertsonalak eta taldearenak.
- Bilerak eta topaketa uneak talde gisa.
- Aisialdi-uneak.
- Hartzailearekiko bilerak eta topaketa uneak.
- Komunikazioa Euskal Herriarekin.
- Ebaluazioa eta KONPROMISOEN JARRAIPENA: "Itzuli ondoren..."
-

4.8 Boluntarioen **bidalketaren** zonaldeko ospakizuna.

5. NAZIOARTEKO BOLUNTARITZAREN PROIEKTUAREN BURUTZAPENA

Egindako Talde Proiektuaren arabera.

6. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

- Esperientziaren ebaluazio pertsonala, proiektuan esku hartu duen bakoitzak egina.
- Elkarre hartzailearen ebaluazioa.
- PROIEKTUARI BURUZKO MEMORIA.
- TALDE PROIEKTUAREN EBALUAZIOA.
- Boluntarioen zonalde-harrera.
- Esperientziaren aurkezpenak.

7. KONPROMISOEN JARRAIPENA

Sektoreko Pastoral eta Aisialdiko taldeak eta Proyde-Proegak laguntza eskaini behar diegu konpromisoen jarraipena EGIKAZKOA ETA ERAGINKORRA izan dadin.

Inportantea da esperientziak parte-hartzaileen bihotza ukitzea eta haiek bizi izandakoa inguruan ezagutzera emateko gauza izatea, konpromiso txikien bitartez.